

Arartekoaren 2020R-2120-19 Ebazpena, 2020ko urriaren 29koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari gomendatzen dio Arabako kirol federazioetan esku hartzeko eta kontrolatzeko neurriak har ditzala, kirol lizentziak izapidetzean hartu diren adingabeen arteko tratu-desberdintasunak saiheste aldera.

Aurrekariak

1.- 2019ko urriaren 11n, Gasteizko ama batek jarritako kexa bat sartu zen Arartekoan. Kexagileak uste zuen diskriminatzailea zela bere semeak, adopzio bidezko nazionalitate espainiarra izan arren, atzerrian jaio zenez, gainerako haurrek ez bezalako dokumentazio espezifikoa aurkeztu behar izatea Arabako futbol federazioan federatzeko.

2.- 2019ko urriaren 24an, Arartekoak Arabako Foru Aldundiaren kultura eta kiroleko diputatuarengana jo zuen, gai horri buruzko informazioa eta bere eskumenen arabera beharrezkoak ziren argibideak eskatze aldera. Arartekoak mota horretako lehen kasua ez zela adierazi zion. Ildo horri jarraikiz, erakunde honek Eusko Legebiltzarrean horri buruz adierazitakoa gogorarazi zion:

“Bestalde, berriz ere helarazi behar ditugu beste herrialde batzuetan jaiotako adingabeek kirol federatuan izena emateko dituzten arazoak. Zentzu horretan, seme-alaba adoptatuak dituzten familien kexak jasotzen jarraitzen dugu; izan ere, horiek, atzerrian jaio izanagatik, tratamendu desberdina jasotzen dute seme-alaba biologikoekin alderatuz. Hain zuzen ere, federazio batzuek aurretiazko erroldatzea eskatzen diete (horren zinpeko adierazpena) eta, kasu askotan, hori ez dator bat errealitatearekin, baina betekizun hori bete ezean, ezin dute jokatu.

*FIFAk ezarritako prebentzioa da hori, futbol-klub handiek gehiegikeriazko praktika zehatz batzuk egitea saihesteko xedea duena. Baina kiroleko agintaritzen aurrean urtero errepikatu dugun bezala, saihestu behar da hori kasu askotan aplikatzea, baldin eta horiek jardunbide horiekin loturarik ez badute. Izan ere, adingabearen interesarekiko disfuntzionala izateaz gain, **ilegala ere bada, aplikazioaren eta horren ondorioen esanahi juridikoa ezezaguna baita.**”*

3.- Arartekoaren aurreko jarrera ikusita, honek Eusko Jaurlaritzaren kultura eta hizkuntza politika sailera ere jo zuen, gai horri buruzko iritzia eman zezan, euskal kirol federazioen lizentziak emateari buruz dituen eskumenen arabera (eremu autonomikoa). Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendariak honela erantzun zigun:

“Euskal Futbol Federazioarekin berriro ere harremanetan jarri ondore, berretsi egiten dugu Euskal Futbol Federazioak betekizun berberak eskatzen dizkiela Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona guztiei futboleko euskal lizentziak emateko orduan, eta ez dagoela inolako oztoporik, ez eta baldintza gehigarrikerik ere, jatorri atzerritarra duten adingabeentzat.

Autonomia-erkidegoaz haragoko lurralde-eremuetan lehiatu nahi denean agertzen da kontua, FIFAk eta Espainiako Federazioak eskatzen duten araudia ezartzen delako horrelakoetan, eta, ondorioz, dokumentazio osagarria eskatzen zaielako jatorri atzerritarra duten pertsoneri.

*Euskal lizentziak eskatzen eta izapidetzen dituztenei FIFAk eta Espainiako Federazioak Espainiako estatuan lizentziak baliozkotzeko eskatzen duten araudiaren berri ematea erabaki zuten Euskal Federazioak eta lurralde-federazioek, **euskal lizentzia lortzeko betekizuna ez dela** azpimarratzearekin batera. **Duela gutxi gogorarazi zaie hori lurralde-federazioei.***

Lurralde-federazioek lizentziak izapidetzean horri buruz informatu orde Espainiako Futbol Federazioak ezarritako betekizunak eskatzen badituzte, gure ustez lurralde-federazio horien erantzukizuna izan litzateke (kasu honetan, Arabakoarena), Euskal Federazioa askotan tematu baita gai hau argitzen “

4.- Arabako Foru Aldundiari informazioa eskatu diogu berriro, COVID pandemiaren ondorioz epe administratiboaren etenaren ondoren, eta kultura eta kiroleko diputatuaren erantzuna jaso dugu 2020ko uztailean. Bertan azaldu dutenez, gure lehen informazio-eskaeraren ondoren, Arabako futbol-federazioa jo zuten, eta 2020ko urtarrilean erantzun zien, honako hau adieraziz:

“... Euskadiko Futbol Federazioak erabaki zuen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde federazioetan, zeinetan izapidetzen baitira lizentziak, jakinaraz zekiela kanpoan jaioak izanda beren klubaren bitartez izapidetzeko eskaera egiten dutenei FIFAk ezarrita dagoen eta lizentzia hori balioduntzat

hartzeko Espainiako Futbol Federazioak eskatzen duen araudia, euskal lizentzia izapidetzeko eta emateko nahitaezko betebeharra izan gabe.

Adieraztea dokumentazio hori ez betetzeak berekin ekarriko duela lizentzia ez aitortzea Arabako Futbol Federazioan, honako ondorio hauekin:

- *RFEFen erregistroan ez erroldatzea, ondorio guztiekin.*
- *Parte hartu ezin izatea autonomia erkidegoetako eta Espainiako selekzioen lehiaketetan.*
- *Klubarentzat eta autonomia erkidegoko federazioarentzat ez kontatzea, lizentzien araberako laguntzetarako.*
- *Ez sortzea diru sarrerarik prestakuntza eskubideengatik parte hartu duten klubentzat, jokalaria profesional bilakatzekotan..*

Aipatu dugun kasu konkretuan, ez da ezezkorik izan lizentzia izapidetzeko, eman egin zaio eta jokatzen aritu da joan zen denboraldiaz gero (2018-2019).

Arabako Futbol Federaziotik, gure federazioaren administrazioari informazioa eman zaio Arartekoari aurkeztutako kearen inguruan, gogoraziz ez dela nahitaezkoa FIFAk eskatutako izapideak betetzea euskal lizentziak izapidetu eta emateko.

Espainiako Futbol Federazioaren lizentzia sailei idazki bat igorriko diegu, Arartekoari aurkeztutako kearen berri emateko. Gai honen inguruko beste edozein argibide behar izanez gero, ez izan zalantzarik guri eskatzeaz. "

Arabako futbol-federazioaren erantzun horren aurrean, Aldundiak berriz ere adierazi die kontua ez dela hartutako adingabe nazional bati kirol lizentzia ematea edo ez ematea (eta, ondorioz, lurralde-lehiaketetan jokatzeo aukera izatea), baizik eta Espainian jaiotako adingabe nazionalen ez bezalako dokumentazio osagarria (zinpeko aitortpena) eskatzean egin daitekeen tratu diskriminatzailea. Aldundiak ohartarazi die, halaber, *"indarrean den araudia betetzea barne gidalero edo jarraibideen gainetik dagoela"*. Jakinarazpen horien aurrean, Arabako federazioak, 2020ko ekainean, urtarrileko idazkia errepikatu zuen, eta, berriz ere FIFArekin eta Espainiako Futbol Federazioaren erregulazioa aipatu ondoren, hauxe adierazi zuen: *"sobre el tema de jugadores/as nacidos/as en el exterior, la Federación Alavesa de Fútbol seguirá tramitando las licencias según la normativa vigente"*.

Hortik ondorioztatzen da lurralde-federazio horrentzat FIFArek eta Espainiako Futbol Federazioaren erregelamenduek izaera arautzaile orokorra dutela, bazkideentzat barne-arau gisa eragiten duenaz harago.

Aurrekari horiek ikusita, Arartekoak egokitzen du gomendio hau ematea, gogoeta hauek oinarri hartuta:

Gogoetak

1.- Federazioen kirol lizentziak emateko eta izapidetzeko foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenari dagokionez, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak adierazten du EAERI dagokiola:

Art. 4 -2d) "Kirol Federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe".

Beste alde batetik, lege beraren arabera, lurralde historikoetako foru organoei dagokie:

Art 5- h) "Lurraldeko kirol-federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe."

Euskal federazioek eta lurralde-federazioek betetzen dituzten funtzio publiko horien artean, Legearen 25 c) artikulua honako hau jasotzen du: *"Federazio-lizentziak ematea eta tramitatzea."*

Hainbestez, aipatu diren artikulua ikusita, foru aldundiei dagokie beren lurralde historikoetako kirol federazioek esku hartzea eta kontrolatzea federazio-lizentziak izapidetzean, haien funtzio publikoak betetzen direla bermatze aldera.

2.- Arabako Foru Aldundiari emandako erantzunetan Arabako futbol-federazioak aplikatzen duela dioen "araudiari" dagokionez, lehenik eta behin adierazi behar dugu FIFA eta Espainiako Futbol Federazioa erakunde pribatuak direla eta, horrenbestez, haien erregulazioak elkartekideei bakarrik eragiten diela, eta ez dutela izaera arauemaile orokorrik. Hala ere, gure ustez komenigarria da puntu honetan

araudi hori aztertzea, kexa honetan aztergai dugun egoera eta aplikatu beharreko araudia zehatz-mehatz argitzeko.

FIFAREN Erregelamenduak, jokalarien estatutuari eta transferentziari dagokienez, 19. artikuluan honako hau ezartzen du:

“Artículo 19: Protección de menores

Las transferencias internacionales de jugadores se permiten solo cuando el jugador alcanza la edad de 18 años.

2. Se permiten las siguientes tres excepciones:

a) Si los padres del jugador cambian su domicilio al país donde el nuevo club tiene su sede por razones no relacionadas con el fútbol.

b) La transferencia se efectúa dentro del territorio de la Unión Europea (UE) o del Espacio Económico Europeo (EEE) y el jugador tiene entre 16 y 18 años de edad. .../...

c) El jugador vive en su hogar a una distancia menor de 50 km de la frontera nacional, y el club de la asociación vecina está también a una distancia menor de 50 km de la misma frontera en el país vecino. La distancia máxima entre el domicilio del jugador y el del club será de 100 km. En tal caso, el jugador deberá seguir viviendo en su hogar y las dos asociaciones en cuestión deberán otorgar su consentimiento.

3. Las condiciones de este artículo se aplicarán también a todo jugador que no haya sido previamente inscrito en ningún club y que no sea natural del país en el que desea inscribirse por primera vez y que no haya vivido en dicho país de manera ininterrumpida los últimos cinco años como mínimo.”

Beste alde batetik, Espainiako Futbol Federazioaren Erregelamendu Orokorraren (2020eko ekaina) 120. artikulua, **“De los futbolistas que no posean la nacionalidad española”** izenekoak, FIFAREN Erregelamenduaren aurreko artikulua bera errepikatzen du 5. eta 6. puntuetan, hirugarren puntua izan ezik, hori alde batera uzten baitu.

Hiru salbuespen horiek bakarrik onartzeak, une jakin batean, arazo batzuk ekarri zizkien bakarrik zeuden adingabe atzerritarrei futbol-lizentziak emateko orduan, besteak beste, eta eragotzi egin zien haiei kirol federatua egitea; horrek, diskriminatzailea izateaz gain, oso eragin negatiboa zuen adingabe atzerritar horien integrazio-prozesuetan. Arartekoaren eta herriaren beste defentsa-erakunde batzuen (hala nola Katalunia eta Valentziakoen) esku-hartzearekin konpondu da arazo hori, halako moldez non kirol-lizentziak ematen baitzaizkie adingabe atzerritarrei, FIFAk adierazitako hiru salbuespenetako batean sartzen ez badira ere; hala ere, Arabako federazioak hizpide dugun gaian adierazi bezala, adingabe horiek ezin dira lehiatu autonomia-erkidegoen artean, 4. aurrekarian adierazitako gainerako ondorioekin.

Ilido horri jarraikiz, adierazi behar dut Ararteko honek jakin duela gai hori FIFARA iritsi dela eta araudian salbuespen berriak sartzea aztertzen ari direla, arestion deskribatu ditugun lagundu gabeko adingabeekiko diskriminazio-egoerak saiheste aldera; izan ere, egoera horiek ez dute zerikusirik FIFAREN gaur egungo prebentzioarekin, futbol-klub handiek abusuzko jardunbide jakin batzuk saihestera bideratuta baitago, adierazi dugun bezala.

3.- FIFAREN eta Espainiako Futboleko Errege Federazioaren erregulazioa zein den argitu ondoren, puntu honetan aplikatu beharreko lege-araudia zehaztuko dugu, aztertzen ari garen gaian arazoa lehenagokoa eta larriagoa baita; izan ere, arestian adierazi dugun bezala, Espainiako Futboleko Errege Federazioaren Erregelamenduaren 120. artikulua ***“De los futbolistas que no posean la nacionalidad española”*** du izena, eta, beraz, erregulazio hori FIFAk eta Espainiako Futbol Federazioak nazionalitatea ez duten adingabeko futbol-jokalariari soilik eragiten die.

Espainiako Konstituzioaren 11.1. artikulua honako hau dio: *“Espainiako naziotasuna legeak ezartzen duen eran eskuratu, gorde eta galtzen da”*. Bestalde, Kode Zibilarren 19.1. artikulua honako hau ezartzen du: *“Espainiar batek adoptatzen badu hemezortzi urtekoa baino gazteagoa den adingabe atzerritarra, atzerritar horrek Espainiako jatorrizko naziotasuna eskuratuko du adopzio-uneetik.”*

Hainbestez, jaiolekua edozein delarik ere, atzerrian jaiotako adingabe adoptatu bat Espainian jaiotako bat bezain espainiar nazionala da, eta ezin da tratu desberdinik eman kirol lizentziak ematean, batzuei eta besteei dokumentazio berezia eskatuz.

Beraz, ezin zaie dokumentazio osagarriak eskatu adopzio bidezko jatorrizko espainiar nazionalari.

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua honako hau ezartzen du: *“Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.”* 14. artikulua horrek Konstituzioaren babes gorena du, Konstituzioaren bigarren kapituluko lehen ataleko oinarriko eskubideekin eta askatasun publikoekin batera, Konstituzioaren 53.2 artikulua dela bide, eta, horregatik, gai honi babes-errekurtsioa jar daskioke konstituzio-auzitegian. Horrek Arabako futbol federazioak bere funtzio publikoak betetzean gai honetan eman duen tratu-desberdintasunak ekar lezakeen larritasunaren berri ematen digu.

Gainera, deskribatutakoa bezalako egoerek beste eskubide batzuei ere eragin liezaiekete, zeren eta gerta bailiteke adingabe batek gurasoen bidez barik bere kirol-klubak edo lurralde-federazioak atzerrian jai delako beste dokumentazio bat eskatu diolako adoptatua dela jakitea.

Aurreko ondorioak ikusita, Arartekoak uste du Arabako Foru Aldundiak egokitzat jotzen dituen neurriak ezarri beharko dituela bere eskumen-eremuko kirol federazioen artean adopzioaren arloan indarrean dagoen legeria ezagutzen dela bermatzeko, eta, beharrezkoa izanez gero, esku hartzeko eta kontrolatzeko eginkizunak bete beharko dituela, horrelako kasurik aurrerantzean berriro gerta ez dadin.

Horregatik guztiatik, Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan xedaturik dagoenarekin bat etorritik, Arartekoak gomendio hau egiten dio Arabako Foru Aldundiari:

GOMENDIOA

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 5 h) artikulua arabera, Arabako kirol-federazioek adopzio bidezko adingabe nazionalari eta adingabe nazionalari tratua ematen dietela bermatzeko neurri nahikoak ezartzea, kirol lizentziak izapidetzean dokumentazio bera eskatzea eta beste tratu-desberdintasunik ez dagoela kontrolatzea.